

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2015

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 5ekoa, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita oporraldia ordaintzea 2024-2025 ikasturtean zerbitzuak eman dituzten bitarteko funtzionarioei.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak, esleituta dituen eskumenen barruan, urtero egiten du, uztailaren, ikasturtean zehar Hezkuntza Sailean zerbitzuak eman dituzten bitarteko irakasleen-tzako oporraldiaren likidazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioarekin bat etorritik (uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bidez araututako akordioa), ikasturte batean 165 egunetan edo gehiagotan lan egin duten bitarteko funtzionarioak uztailaren izendatuak izango dira, eta hilabete horri dagozkion lansariak jasoko dituzte. Halaber, aldi horri dagozkion puntuak ere jasoko dituzte, irakaskuntzako ordezkogaien zerrendaren baremoaren ondorioetarako.

Abuztua eskola-hilabetea ez denez eta hezkuntza-eremuan hilabete hori opor-garaia izaten denez, sortuta baina hartu gabe dauden oporraldiei dagokien likidazioa egiteari ekin zaio, 2024-2025 ikasturtean zehar izandako izendapen bakoitza uzteko unean.

Ebazpen honen bidez bitarteko funtzionarioei jakinarazi nahi zaizkie 2024-2025 ikasturtean zehar hitzartu ahal izan diren izendapenen ondorioz sortutako eskubideak. Era berean, aitorpen horiek, langile jakin batzuen kasuan, betebeharrak batzuk dakartzatela ere jakinarazten da.

Aurrez esandakoa aintzat hartuz eta eman zaizkidan eskumenen arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— 2024-2025 ikasturtean 165 egunetan edo gehiagotan lan egin duten bitarteko funtzionarioei eskubidea onartzea bai izendapena jasotzeko, bai uztaileko hilabeteari dagozkion lansariak ordaintzeko, eman dituzten zerbitzuen proportzioan, kidegoa, maila eta dedikazioa kon-tuan hartuz, Oporraldien Ordainketa Arautzeko Instrukzioak esaten duenaren arabera.

Bigarrena.— Onartzea, aurreko kasuan, aldi horiei dagozkien puntuak, irakaskuntzako ordezkogaien zerrendaren baremoaren ondorioetarako.

Hirugarrena.— Interesdunei jakinaraztea uztaileko hilabeteari dagokion oporraldiko izendape-nak beti sortzen duela beste izendapen baterako eta beste izendapen-uzte baterako eskubidea, eta, ondorioz, izendapen horrek berekin dakarrela Gizarte Segurantzaren alta ematea. Horrega-tik, langabezia-prestazioak jasotzen ari direnek dagokion erakundera joan beharko dute, Gizarte Segurantzaren alta-egoeran dauden bitartean prestazioaren kobrantza eteteko.

Laugarrena.— Interesdunei jakinaraztea, halaber, ekainaren 30a baino lehen izendapena amaitu izanagatik baja hartzen dutenek edo hartua dutenek, eta uztaileko izendapenaren hasiera-egunetan izendapena eta Gizarte Segurantzako alta eragozten duen aldi baterako ezintasun-egoeran edo amatasun-, harrera-, adopzio- edo aitatasun-egoeran badaude, egoera hori justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dituztela, uztailaren 1a baino lehen, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan.

Era berean, uztaileko hilabeteari dagokion izendapenaren hasiera-egunean lan-kontratu bat dutenei ezin izango zaie izendapenik egin, baldin eta bi jardueren bateragarritasuna onartuta ez badute.

Kasu horietan, ezinezkoa da izendapen bat eta dagokion Gizarte Segurantzako alta formalizatzea –salbuespena izango da udako izendapenaren hasiera uztailaren 1a baino lehen eskatu izan denean, izendapena eragotzi zuten egoerak (aipatu direnak) bukatu ondoren–; hori dela-eta, izendapena atzeratzeko aukera izango dute, zeina uztailaren 31n amaituko baita kasu guztietan.

Azken aukera horri heldu ahal izateko, interesdunak konpromisoa hartu beharko du izendapena eragotzi zuen egoera bukatu dela jakinarazteko, justifikatuta, dagokion lurralde-ordezkaritzan. Jakinarazpen horretatik aurrera, legokiokeen gainerako izendapena egingo zaio, zeinaren indarraldia uztailaren 31ra artekoa izango baita gehienez.

Bosgarrena.– Uztaileko izendapenerako eskubidea sortzeko aukera izanik beren egoerak Gizarte Segurantzaren alta ematea eta, ondorioz, izendapena jasotzea eragotzi dienek ez dute inolako konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

Seigarrena.– Argitara bedi ebazpen hau EHAAren eta Sailaren webgunean.

Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioke Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 5a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.